

GURE ITSASOA, DENON ITSASOA?

- Itsaslapurrak, piratak, marinélak, korsarioak... baina amona, itsasoan ez al da inoiz emakumerik ibili?- galdetu du Izarrek haserre.

Amonak lehenik irri eta gero xirri egin dio, masailean. Bere izenari men eginez, Izar beti izan da argia eta bere galderek, zalantzen itzalak argitzea izan dute beti xede. Amonak, Izar eta bere ahizpa txikia Nileri adi adi begiratu eta sekretuak kontatzen diren modura xuxurlatuz, amua bota die, irudimenaren itsasoan barneratu daitezten. Oraindik, haur izateari ez diezaioten utzi.

- Sekretutxo bat kontatuko dizuet: Pasai Donibanen jaio zen nire amaren amonaren ama, beste emakume batzuekin batera; oso ausarta eta boteretsua izan zen, ia superheroi baten pareko. Talde bat osatu zuten gainera euren lana hobeto egiteko eta herria zerbitzatzeko: batelerak izena hartu zuten. Ama naturak bizitza eman digunez, itsasoa bera ere emea da, bateleren antzera; handik erditu zelako gizakia, urak hautsita eta aldi berean, urez osatua.

Harri eta zur gelditu dira bilobatxoak, hitzik gabe dena esaten dutela. Bateleren hariari lotu zaio amona, irudimena askatzeko asmoz.

- Pasai Donibane inguruko baserrietako alabak ziren haietako asko. Garai hartan, gure lurra itsasoa zelako. Zergatik? Ba, baserrietako soro eta zelaiek eguraldiarekiko menpekotasun osoa izanik, uztak beti ez zirelako ziurrak. Itsasoa ordea, beti izan da emankorra eta herriko baserrietako mahaietan beti zegoen arraina, bakailaoa edo itsaskiren bat. Baserria beti egon da itsasoaren egarri, eta batak bestea elikatu izan du; elkar jan gabe. Baina itsasoak erpinak ere baditu, min eman dezaketen erpinak, izkin egin ezin zaizkion izkinak; bertako lana gogorra, anonimoa eta sarritan esker txarrekoa baita, batelerena kasu.

Nile txikiak eskua altxa du galdetzeko baimen eske.

- Non ikasten zen batelera izaten? Ikastolara joaten ziren?
- Ba, garai hartako eskolak baserriko otorduak eta itsasoa bera ziren. Jakin beharreko gehiena bazkalosteko hizketaldi luzeetan jasotzen zuten, euren guraso edo senide zaharragoengandik; ahoz ahokoan, gu oraintxe ari garen bezala. Haiek irakasten zieten pertsonak eta merkantziak badian punta batetik bestera garraiatzeko beharrezkoa zen jakinduria guztia. Zaharrenek... eta itsasoak berak, hura gizakia baino zaharragoa delako.
- Eta zintzoak ziren emakume haiek?

Amonak hasperen egin du. Txikienei guztia txuria edo beltza marrazten diegun mundu honetan, grisak zein leku gutxi duen jakitun; azaltzen saiatu zaie.

- Zintzoak ziren, horregatik ez ziren beti esanekoak. Zintzotasuna, beti ez delako obedientzia. Gizonezkoek menperatutako mundu batean, itsasoan unibertso bat sortzea lortu zuten. Euren kode propioak eraiki zituzten, eta euren jokamoldeak haietara egokitu. Langileak ziren eta euren lanak mantentzeko, gizonezkoei lanak ematen zizkieten erasotuak sentituz gero.

Atsedean pixka bat emango diela erabaki du amonak. Abenturaz hornitzeko garaia dela iritzi dio.

- Eta badakizue zer? Haietako askok, gerra bat irabazi zuten!
- Hori ezinezkoa da, amona! Ikastolan mila aldiz esan digute euskaldunok gerra guztiak galdu ditugula...- Nileri ulergaitza egin zaio amonak esandakoa.
- Bai...zehazki, gizonak jardun diren gerra guztiak galdu ditugu. Baina emakumeok, beste guda batzuk bizi izan ditugu. Hitzaren eta bakearen bidez egiten den guda.

Txundituta begiratu diote bi txikiek.

- Gizonezkoak lur gaineko gerrateetan edo itsasoko frontean borrokatzen ziren bitartean, emakume haiek hizkuntza, ohitura eta kantuen transmisioaren guda irabazi zuten. Euskaraz hitz egiten zieten euren seme-alabei, kultura oso bat ahoz aho paseaz. Euskararen itsaso lehor bat sortuz.

Eta azkeneko kolpea emateko prestatu da amona.

- Eta esango banizue botere magikoak zituztela?

Ez du baietzik entzun behar izan bi txikien onarpena aditu eta sumatzeko. Kontatzen jarraitu dezan eskatu die euren begiek.

- Batelerak, jatorriz; arraza ezberdin batetik zetozen: kaskarotak ziren, iparraldetik zetozen erdi-ijitu eta erdi-agotak ziren haien oinordekoak; baina urteekin ederki integratu ziren gure artean. Dakizuen bezala, itsasoak ez du mugarik... baina mugarri izan liteke. Emakume haiek jakintsuak zirelako, itsasoko edozein ekaitz gertatu aurretik iragartzeko gai ziren, txori mota ezberdinen ibilbidea ikusi edo olatuen joan etorriak sumatuta. Hori gutxi ez, eta euren itsas-adarreko korronteetan adituak ziren, eta itsasontzi erraldoiak porturatzen laguntzen zituzten, olatuen azpi-joko guztien jakitun baitziren. Oso –oso emakume alaiak, kantari finak eta fandangolariak ziren. Laburbilduz, seigarren zentzu bat garatu zuten emakumeak izan ziren. Baina...

Isiltasun dramatiko bati eman dio bide amonak, eta txikien ezinegona igarrita, dotore amaitzen saiatu da.

- Itsasoko izaki mitologiko gaiztoenei aurre egin zieten bakarrenetakoak izan zirela dio kondairak. Gure itsasoan, Traganarru (trumoiaren garroa edo tentakulua zuena, tenperatura aldaketa bortitzak gertatzean agertzen zena), Lehen (kostaldeko harkaitzetara itsatsia bizi zen haragijale beldurgarria), Iraunsuge (kobazuloetan bizi zen izaki itsastarra, arrantzaleak jaten abila), Lauso (itsasoko lanbroarekin nahasten zen izakia, izurriteak eta gaixotasunak ekartzen zituen herrietara) eta antzeko izakiak ibiltzen ziren igeri, eta gure arrantzale eta itsas-gizonak izaki haien beldur ziren. Izaki haiek, giza-haragiz bakarrik ez, haien beldurraz ere elikatzen zirela jakitun ziren batelerak; eta behin baino gehiagotan garaitu eta uxatu izan zituztela azaltzen dute kondairek... baina, badakizue nola?
- Armak erabiliz? Arpoi eta sare bereziekin borrokatuz?- Izar musugorrituta ageri da, parean ikusiko balitu bezala.
- Hori baino arma indartsuago batekin: alaitasunaren bidez! Izan ere, batelerek asko abestu eta kantatzen zuten eta euren seigarren zentzu horri esker, hasieratik jakin zuten izaki gaizto haiek gizonen beldurrari esker hazi eta indartsuago egiten zirela. Eta hala, izaki haietako bat agertu zitekeela somatu orduko; abesten hasi eta zeukaten botere guztia kentzen zioten...

Amonak nekatuta amaitu du, baina pozik. Bi txikiak harretaz begiratzen diotela probestuz, gaineratu du.

- Honekin esan nahi dudana da, itsasoa; gure itsasargia izan dela mendeetan zehar, bizitzeko modu baten kriseilua. Gure itsasoan emakumeak ere nagusi izan direla, nahiz eta historian gizonezkoen izenak soilik gailendu diren, izana emakumeona ere izan delako, aldi berean. Isilpeko lana egin dute, baina haiek egindakorik eta babesik gabe; agian gu gaur ez ginateteke hemen egongo...

Izarrek, entzun duen guztia bere lagunei kontatu diezaiekeen baimena eskatzeko zabaldu duenean ahoa, amona bera aurreratu zaio.

- Noski baietz, Izar maitea!! Kontatu eta zabaldu azaldu dizuedan guztia zuen lagun, senide eta hurbilekoei...ahoz ahoko kontuak, denen ahotan egotea gauza ederra da !
- Baina amona... nola jakin duzu zer galdetu behar nizun nik esan aurretik?
- Nik ere seigarren zentzu bat garatu dudalako, ttiki...zergatik ote?- eta begia kliskatuz, muxu eman die bi txikiei.

EME